

mendia ▸ IBILBIDEAK

# Zehebiagako hegia Ibarrettoaren mugaldean

Zuberoako Barkoxe eta Montori eta Biarnoko lurrak elkartzen diren parajera gramatzatza txangoak

## ALLANDE SOKARROS

Oinez abiapuntu izango dugun Latailladeko lepoa aurkitzea bera ere ez da errazena, eta mapa baten irakurtzen jakitea nahikoa lagungarri izango da. Egokiena da, dena den, Biarnorekiko mugan, Zuberoako azken herrian den Montorira joatea eta han Barkoxerako bide oso polita hartzea. Hiruzpalau kilometro egin ondoren, Etxarri baserriaren pare-parean, eskuin alderat —ekialderat— abiatzen den bide txiki bat hartuko dugu. Bide honen abiapuntuan, zedarri batek Barkoxe hiru kilometrorako dagoela seinaltzen digu.

Bide txiki honetan, kilometro bat eta erdi inguru eginik, bidegurutze batera iristen gara. Hori da Latailladeko lepoa (405 m), eta handik bertatik oinez ibiltzen hasiko gara. Iparraldera gorantz egiten duen bidexka harriztatua hartuko dugu, hamar bat minuturen buruan Baraleineko lepora heltzeko (442 m). Zuberoa eta Biarno arteko mugan gaude, nahiz eta frantsesek eta biarnesek Baretos izena duen haranak ezin duen ezkutatu zuberazko *ibarrettoa* (ibar txikia, alegia) hitzean daukala jatorria. Orain dela bi mende, edo gutxiago ere, euskaraz hitz egiten zen haran honetan eta bertako herri guztiek euskarazko izenak ere daukate: Landa, Aramitze, Iñhazi, Ereta, Izor...

Iranganaren oroimin hauek utzirik, Baraleineko lepoan, ipar-mendebaldera doan hegi belartsua hartuko dugu, nahiz eta saihetsean dagoen lur bidea ere erabil daitekeen. Hegitik ibilita, berehala begi gozamen izango ditugu bazter ederrak. Mendebaldean, hurbil-hurbil, mehak sakon baten beste aldean, hortxe ditugu Erretzi eta Maidale-na mendixkak. Mendebalde zein hegoalderat hurrenez-hurren ikusmiran izango ditugu, berriro, Södu, Argibel, Izarbetik Ligi arteko hegiko gailurrak, Binbaleta, Kartxela, Otsogorrigaina, Ori, Harsüdürä (Escaliers), besteak beste.

Zebiagako hegi belartsu eta ote-



Latailladeko lepora bueltan. Urrunean, ezkerretik eskuinera Södu, Iridoi eta Hilaga mendiak. ALLANDE SOKARROS


tsuaren haritik ibilki gabiltzala, pinudi bat izango dugu bidaide, ezkerreko maldan. Hegi honek gorena jotzen du 480 metroan eta jarraian seko behera sartzen da. Aski fite sigi-saga urratutako xenda batekin egingo dugu topo eta, zurezko langa batean, aukera emanik zaigu bazkaleku baten behera jaisteko edo Itxal izena duen etxe batera daraman bide txiki bat topatu arte joateko. Nolanahi ere, kasu batean zein bestean, Montori eta Barkoxe arteko errepidera iritsiko gara, bi bidea eta errota zahar baten arrastoak ageri diren leku batera (265 m).

**JOSIBAIA ETA ERREKA HANDIA BIDAIDE.** Inguru horretan da ere Josibaia erreka oso polita bidearen alde batetik bestera igarotzen. Beraz, errepide honetan bostehun bat metro ibiliko garelarik, eskuinean bidelagun izango du Josibaia. Haatik, eskuinaldean eta bide aldepean kokatuta den Ibar baserria pasatu eta berehalaxe agur egingo diogu Josibaia-ri, eta hari bere urak dakartzkion Erreka Handiaren bazterretik gorantz laguntzen duen bide harriztatua hartuko dugu. Erreka Handia deitzea gehiegi da, egia erran, erreka bat baita, baina zein polita eta gustagarria. Erreka Handiaren mehak guztiz atsegingarriko malda baten gora laguntzen gaituen bide harriztatu hau etxe gisara zaharberritutako bidea batean bururatzen da.

Borda berri honetatik aurrera, lur bide batean jarraituko dugu, ekialdera, apurtxo bat goialdean

## Erreferentziak

- 00:00 Latailladeko lepoa
- 00:10 Baraleineko lepoa
- 01:00 Montori eta Barkoxe arteko bidea
- 01:45 Erreka Handiko borda
- 02:15 Latailladeko lepoa



Desnibela 300 m  
Zailtasuna \*\*\*  
Luzera 7 km  
Denbora 2 ordu 15 min




## Montori: kontsularen amesgaiztoa...

Txango hau egitean, edo ez, Montori herria bisitatzea gomendagarria da. Ezen oso polita baita Zuberoa eta Biarno mugako herri hau. Bere eliza gotortua, esaterako, guztiz ikusgarria da. Honetatik hurbil, gaur egun Herriko Etxea den egoitza apaiztxea zen lehen, eta Euskal Herriaren historia garaikideko gertakari oso garrantzizko baten lekuko izan zen. 1970. urte amaieran, Franco diktadorearen erregimenak euskal abertzale andana epaitzen zituelarik Burgosko auzian, ETA erakundeak bahitu zuen Donostian Alemania federaleko kontsul Eugen Beilh. Jakina, bahiketa egileez kanpo,

inork ez zekien non zegoen gatibu kontsula...

Montoriko apaiztxeko lehen solairuko leihoetik salto eginda ihes egitea lortu zuen arte! Gaueko jantzitza agertu zelarik, frantses kaxkar batean mintzo zegoela, herriko taberna batean sartu zen Beilh esanez Alemaniako kontsula zela eta eliza alboko etxe batetik ihes egin zuela...

Zer egin zuten, bada, tabernan zeuden lagunek? Apaiztxera berri eraman zuten, zoro batentzat esdo hartu zutela! Haatik, ETAk aski laster aske utzi zuen, 1970eko Eguberrian.



Eguraldiak eragina du zure bizitzan. Toki bakoitzeko eguraldiaren berri zehatza izatea oso mesedegarri izan liteke zuretzat. Gure herriko informazio meteorologiko guztia aurkitzeko

[www.euskalmet.net](http://www.euskalmet.net)



aurrera doan herria

